

KUTXABANK ETA BERE AKZIODUNEN, BBK, KUTXA ETA VITAL BANKU-FUNDAZIOEN ERAGIN EKONOMIKOAREN AZTERKETA 2021. URTEAN

Lurraldeko ekonomian izan zuen eragin positiboa **776 milioi** eurokoa izan zen, EAEko BPGaren % **1,17aren** baliokidea

Kutxabankek % 15 handitu zuen bere pisua euskal ekonomian iaz

- Finantzaketa aintzat hartuta, Bankuaren eta bere akziodunen jarduerak % 14,3ko eragina izan zuen BPGean
- Guztira 4.100 euskal hornitzaile kontratatu zituzten, eta 213 milioi euroko erosketak egin zizkieten
- Erkidegoko diru-kutxa publikoak guztira 187 milioi euro jaso zituen tasa eta zergetan, % 39,5eko zerga-ekarpenarekin
- 4.795 milioi euro baino gehiago sartu dituzte euskal ekonomian langileei, hornitzaileei, zergak eta partikularrei eta enpresei egindako ordainketen bidez

2022ko ekainaren 15ean. Iaz susperraldi ekonomiko motela, ustekabeko inflazio-prozesu baten eragin negatiboak eta funtsezko lehengaien prezioen igoerak izan ziren nagusi. Testuinguru horretan, Kutxabank Taldeak eta bere akziodun diren Fundazioek **euskal ekonomian bere pisua handitzea** lortu zuten, eta ekonomiaren garapenaren eragile nagusietako bat direla baietsi zuten.

Hori da **CEPREDEK** urtero egiten duen eragin ekonomikoaren **azterketak** eman duen ondorioetako bat, agerian jarri baitu Kutxabankek eta bere akziodunek eragina handitzen jarraitu dutela BPGaren sorreran eta administrazio publikoei egiten dieten ekarpenean, modu **errepikakor eta iraunkorrean**.

EUSKADI

- **213 milioi hornitzaileei**
- **209 milioi soldatatan**
- **187 milioi zerga eta kotizazioetan**

Bilboko Burtsaren eraikinean izan duten bileran, **Gregorio Villalabeitia** Kutxabankeko presidentea **Iñigo Urkullu Lehendakariari** urteko txostenaren ondorio nagusiak azaldu dizkio.

Taldeak lurraldeko ekonomian izandako eragin positiboa % **15 hazi** zen iaz aurreko urtearekin alderatuta. Erakundearen jarduera korporatiboak Barne Produktu Gordinari egin zion ekarpena **776 milioi** eurotan kokatzen du txostenak, EAEko ekonomia osoaren % **1,17aren** baliokidea.

Aipatzekoa da iaz Kutxabank Taldeari egotzitako **emaitza garbia 216,5 milioi** eurokoa izan zela, behin zerga gastuak ordainduta. **Negozioaren gaineke zerga-ekarpenaren ratioa % 39,5ekoa** izan zen, hau

da, negozioak sortutako 100 euroko, 39,5 euro zergak ordaintzera bideratu zituen Kutxabank Taldeak.

Kutxabankek eta Banku Fundazioek **609 milioi** euro baino gehiago bideratu zituzten Euskadin, **hornitzaileei, langileei eta administrazio publikoei** ordaintzeko. 2021ean Kutxabankek eta Fundazio akziodunek **euskal enpresen lehen kontratatzaile** izaten jarraitu zuten, gehienak -% 85- zerbitzuen sektorekoak, zehatz esanda informatika arlokoak. Guztira, **4.100 enpresari** egin zizkieten zerbitzu-eskaerak, **213 milioi** euroko balioarekin.

Taldeak **3.000 lanpostu zuzen** zituen Euskadin, eta Euskadiko diru-kutxa publikoak guztira **187 milioi** euro jaso zituen tasa eta zergatan, eta beraz Euskadiko **zergadun nagusienetako bat** izaten jarraitzen du, krisi egoera larrienetan ere, diru-kutxa publikoei geroz eta ekarpen handiagoa egiten jarraitu baitu.

Guztira, iaz **4.795 milioi** euro baino gehiago sartu zituen euskal ekonomian langileei, hornitzaileei, zergak eta pertsona fisikoei eta tokiko enpresei egindako ordainketen bidez. Horrek erakusten du, ekonomia berraktibatzeke euskal finantza Taldeak duen garrantzia.

Mailegu-jardueraren eragina

Kutxabanken kreditu jardueratik eratorritako **zeharkako eta eragindako ondorioak** ere zehazten ditu azterketak. Bankuak enpresei eta partikularrei bideratu zien finantzaketak, zeharka eta era-induzituan, **8.759 milioi** euroko ekarpena sortu zuen, Euskadiko **BPG osoaren % 13,2**.

	JARDUERA KORPORATIBOA			FINANTZAKETA-JARDUERA		
	BPG	ENPLEGUA	ZERGA	BPG	ENPLEGUA	ZERGA
ZUZENA	510	2.965	187	-	-	-
ZEHARKAKOA	257	4.395	103	8.469	126.592	3.300
INDUZITUA	9	125	3	291	4.063	108
GUZTIRA	776	7.485	294	8.759	130.655	3.408
	%1,17	%0,81	%0,43	%13,16	%14,22	%5,12

JARDUERA KORPORATIBOA + FINANTZAKETA-JARDUERA

	BPG	ENPLEGUA	ZERGA
GUZTIRA	14,3 %	15,0%	5,6 %

Gainera, Kutxabank Taldeak 130.000 lanpostu baino gehiago mantentzen laguntzen zuen, Euskadiko **enplegu osoaren % 14,2**, eta **3.408 milioi** euroko zerga bilketa.

Espainia: 449 milioi zerga eta ekarpenetan

Kutxabankek eta Banku Fundazio akziodunek iaz izan zuten eragin ekonomikoari buruzko azterlanak ondorioztatzen du Erakunde horiek **449 milioi euroko bilketa** sortu zutela Espainia osoan, zerga eta tasen bidez.

Txostenak agertzen duenez erakunde horiek **1.448 milioi** euroko baliabideak sortu zituzten Espainia osoan, hau da, Estatuko BPGaren % **0,13**ren baliokidea. Gainera, Finantza Taldeak **16.538 lanpostu** mantentzen lagundu zuen.

Guztira, **9.740 enpresek** ematen diete zerbitzua Espainian finantza Erakundeari eta akziodun dituen Banku Fundazioei, eta hauek **443 milioi** euro gastatu zituzten hornitzaileei ordaintzen. Urte amaieran, Kutxabank Taldeak eta BBK, Kutxa eta Vital Fundazioek **5.875 pertsona** baino gehiagoko plantilla zuten.

Bere kreditu-jarduerari dagozkion datuak gehituta, analisiak **27.354 milioi eurotan** - Espainiako BPGaren % 2,44- eta **463.425 lanpostu** baino gehiagotan kokatzen du Kutxabanken eta Banku Fundazioen jarduerak estatuko ekonomian iaz izan zuten eragina.